



2023KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZO: ITURRIOTZ

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2022-10-05	19:04	20:50

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:	Jexux Leonet, Agustin Lekuona, Haizea Saez de Eguilaz			
Herritarrak:	Euskaraz: 10		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 7		Gizonezkoak: 3	
	<30 urte: 1	31-50 urte: 3	51-65 urte: 4	>66 urte: 2

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	Auzo batzarraren nondik norakoak azaldu dira eta hobarien azalpena eman da
Legeltzaldiko balorazioa	<p>Lerro estrategikoen azalpena eman da:</p> <ul style="list-style-type: none">- Elikadura burujabetza: lehen sektorea indartzea izan da lehentasuna (Lurbizi, HemenGuk azoka, Elika...)- Energia trantsizioa: energia kontsumo burujabea eta berriztagarria da helburua (ibilgailu elektrikoak, Goiener, udal eraikinetan plaka fotoboltaikoak jarri...). Kooperatibaren inguruan galdetu da: zertan datza kooperatibak? Zein ezaugarri izango ditu? Agustinek sor daitezkeen proiektuen adibideak eman ditu eta sortuko den kooperatiba horrek energia burujabetzaren alde lan egingo du. Ez da izango energia kontsumo propiorako, baliteke agian inguruko dendei etab. Energia ematea, baliteke enpresa bat sortzea bertako egurrekin lan egingo duena... Helburua energia burujabetza izango da. Partaidea edonor izan daiteke, Udala ere bada. Auzoan nola funtzionatuko du kooperatibak? Interesdunak eta Udala harremanetan jarriko lirateke Goienerrekin eta energia nola lortu landuko litzateke. Adibidez, auzoko

	<p>frontoian plakak jarri eta bertan ekoiztuko den energia 500mtako erradio batean erabili. Komunitade moduan edo banaka har daiteke parte? Taldean egingo den zerbait da, interesdunak bildu beharko lirateke eta martxan jarri.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Zaintza: etxez etxeko zerbitzua indartu da eta gizarte zerbitzuei bere espazioa eman zaie, Fermiñenen hain zuzen. - Kultura: Landetxeko eraikina eta hori kudeatu/osatuko duen taldea sortu da. Ondareak geroz eta pisu handiagoa du, Arizmendienea eta ondare mahaia, kasu. - Zeharlerroak (parte hartzea, euskara eta berdintasuna) eta beste egitasmoak (Altzibar biziberritu, UrkabeBaitako etxebizitzak, poligonoen biziberritzea eta Gurutzeko bidegorria) azaldu dira gainetik.
<p>2023ko aurreikuspena</p>	<p>2023ko aurrekontua azaldu da. KPIaren igoera gehiegizkoa da, eta horren aurrean, Udalak 1,5 igotzea erabaki du. Sarrerak eta gastuak azaldu dira. Udalak zuen zorra kitatu duela azaldu da. Aurrera begira Udalak zorpetze beharra izanez gero, maileguak eskatu ditzakeela azaldu da. Auzotar batek harrigarria dela dio Udalak ez zorrik izatea, gauzak ongi egin direnaren seinalea izan daitekeela adierazi da. Bestalde, kanpotik diru asko ekartzea lortu dela adierazi da (Gurutzeko bidegorria eta poligonoak kasu, aurrekontuetatik kanpo diru dezente ekarri baitituzte proiektu horiek)</p>
<p>Auzoa</p>	<p>Legegintzaldi honetan zer egin den adierazi da</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dorretxeko aparkalekua - Ibarreko semaforoa, zebraidea... - Aparkaleku eta trafiko antolakuntza: auzoko azterketa egin eta auzoa antolatu da, nola aparkatu zehaztuz, esaterako. - Herri Bideak: pare bat herribide berritu dira, asfaltatu, zabaldu... - Ohiko mantenu lanak <p>Aurrera begira zer?</p> <ul style="list-style-type: none"> - Anerreko zubia: epaiketa izan da eta Udaletxeak irabazi du. Beraz, puskatu zuen enpresak ordaindu behar du. Esleitu eta martxan jarri behar da.

- ITU-2 garapena. Kanpo promozio bat da, oraindik ez da inor mugitu, udalean ez du inork eskaera egin. Etxe hauen altueraren inguruan galdetu da, 3-4 pisukoak.
- Beheko Soroko mureta konpondu: kanpokaldetik begiratuta errepide aldera erortzen ari da, artesiak ditu. Bertan dagoen pinuaren sustraiak dena mugitzen ari dira eta ikusi beharko da zer egin. Zebrabideko arriskuaren inguruan kezka azaldu da. Semaforo bat jartzeko aukera? Badenak? Ibarren lortu zela azaldu da, baina zail ikusten da Udaletik Aldundiak baimena ematea. Aldundiaren errepidea da eta nekez ikusten da hor zerbait lortzea. Aldundiaren irizpideak azaldu dira eta puntu beltza izan arren, hor enjkatzea zail ikusten da. Altzibarretik etorrita ere jendeak ez du frenatzen. Arriskutsu dago, nahiz eta biribilgunea egon.
- **Seinalizazioa:** seinaleak ea ongi dauden begiratu da. Hala ere, Karrikan esaterako seinalizazio guztia berri da baina gaizki egiten jarraitzen dugu, herritarrek gara okerrenak. Bestalde, Zuberoako sagarrondotan seinale bat lurrean dago eta beste noranzkoan, Garmendiko sarreran belarrarekin tapatuta dago. Horiek begiratzeko, Aldundira eskaera egiteko konpromezua hartu da. Seinale pedagogikoen inguruan hitz egin da. Hortik zer informazio atera daiteke? Udaletxera zenbait informazio iristen da, kotxeak zein abiaduran pasatzen diren, zenbat aldiz jartzen den gorria... Momentuz jendeak kasu egiten dio baina pentsatzen da horrek ere eraginkortasuna galduko duela aurrera begira.
- Makutxoko bidea eta bidegorria lotu. Zubiarekin batera aztertu beharreko bidea da, "Xurko"ko herri bidea aprobetxatu nahi da herritarrentzat baina zer ari gara eskaintzen? Arriskutsua izan daiteke.
- Planeamenduari begirada: auzoaren garapena nola dagoen erakutsi da.

Auzotarren galderak/eskaerak:

- Zuntzaren gaia nola dago? Fibra ultra azkarra proiektua martxan dago, Aldundiak zona txuria (landa eremuan) izeneko gunetan jarri nahi zuen, baina udaletxera ez da informaziorik iristen. Diru laguntzak Estatutik datoz eta horiek begiratu daitezke etxearen helbidearekin.

Berez jartzen du Iturriotzek baduela fibra, baina... Ez bada kasua, bertara joan behar eta galdetu/kexatu. www.euskadibandazabala.eus

- Ispilu eskaera: Altamira urbanizazioaren kanpoan (Altzibarra bidean eskubian) postea dago baina ispilurik ez. Garmenditik etorrira edo frontoi aldetik etorrira eta Zuberoatik igotzen ispilua jarri Argiñeneko etxean. Edo Garmendiko bidetik etorrira STOP kartela agian. Kotxe bat eta bizikleta bat jo egin ziren uda hasieran.
- Aparkalekuak: zenbat egun egon daiteke kotxe bat aparkatuta? Jendeak ez du errespeturik. Aparkaleku berria egitea eskertu da, oso txukun geratu dela. Baina jarritako zenbait seinalek ez dute funtzionatzen. Agian isunak jartzea da irtenbidea.
- Garbitasuna: gutxi etortzen dira. Ze maiztasun duten begiratuko da eta ea maiztasun hori betetzen duten. Aportazio gunearen inguruan galdetu da. Nork du giltza? Beste auzoetakoek printzipioz ez dute hori irekitzeko baimena. Batzuk garbigune bezala erabiltzen dute, sofak etab. Zerradura ere tarteka gaizki dabil, begiratuko da. Zaborraren kudeaketa onaz hitz egin da. Gauza asko ondo egiten ditugu, eta horiek ez dira kontuan hartzen. Aportazio guneen kontuak ezin digu desmoralizatu.
Kafe kapsulei dagokionean. Urnietan ikusitako zaborrontziak jarri, herrian pare bat edo kapsulak birziklatzeko aukera izateko.
- Txirrundulariak: haien abiadura gehiegizkoa da, oso azkar ibiltzen dira Ozentzio kalean eta Sagu Errekan zehar.
- Autokarabanak: zer egingo dugu haiekin? Polizia ereduaren inguruan hitz egin da, isunak jartzea da helburua?
- Skate Park: argi gehiago jarri daitekeen galdetu da. Orain jartzeko asmoa dagoela erantzun da. Eserleku batzuk itzaletan jartzeko proposamena egin du auzotar batek.
- Ozentzio 26-28 etxean bizi diren bizilagunak. Plaza argitzeko dagoen fokoa gehiegizkoa dela diote. Beharrezkoa da hainbeste argi? Zenbait etxeetan sartzen da argia, molestutzen du... Baina hala ere kalea argitzatzeko gehiegi da. Garai batean potentzia jaitea lortu zen, lehen gehiago zuen, baina oraindik ere aztertzeko eskatu da. Argindarraren



2023KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



	<p>kontsumoa jaisteko ere balio dezake. Arautegia ere begiratu behar da, baldintza batzuk bete behar ditu. Tronpeon, aldiz, argiteria falta da.</p> <ul style="list-style-type: none">- Auzo lokala: zokaloak altxatzen ari dira, xixareak agertu dira... Berriz etorriko dira, eta begiratu da dena (pintura etab.). Bertako materiala nola hornitu, mahaia etab. Agian erosi eta gero faktura pasa? Amonentzat giltza abat behar da.- Poligonoen biziberritzea asko eskertu da, bai bertan lan egiten dutenentzat bai bertara zerbaitetara joaten denarentzat.
--	---

BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	8,75
bilera ongi gidatu da	8,88
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,88
Auzotar kopurua	4,63
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	8
Saioa probetxugarria izan al da?	8,38
Egunaren egokitasuna	8,38
Orduaren egokitasuna	8,5
Lekuaren egokitasuna	8,75